

Txakolina



Nortasun euskaldunez betetako ardoa

INFORMAZIOPRAKTIKOA

BILBAO TURISMO
www.bilbaoturismo.net
BIZKAIA TURISMOA
www.visitbiscay.eus
EUSKADI TURISMOA
www.turismo.euskadi.eus/eu
NEKATUR/LANDA-OSTATUAK
943 327 090 - www.nekatur.net

MUSEOAK
TXAKOLINGUEA
BAKIO
www.bizkaika.bizkaia.eus/txakolingunea
94 602 85 13



BIZKAIKO TXAKOLINA JD-A
MENDIBILE
Leioa
www.mendibilejauregia.com



Kopa ertain bat hartu, eta edukieraren herena bete, hobeto asindu eta maniatu ahal izateko. Ondoren, koloreari begiratu diogu. Ardo zuri gaztea denez, kolorearen pantonea honako hau dela ikusiko dugu: hori hila, hori hil berdekkara, hori berdekkara, hori lastokara. Distira eta gardentasuna dira baliotsi beharreko beste ezaugarri batzuk.

Lurrinaren intentsitatea neurtzeko, ardoa sudurrera hurbilduko dugu. Ondoren, kopa asinduko dugu, ardoa aireztatzeko, eta berriro usainduko dugu, lehen atzemandako usainetan aldatetarik gertatu den behatuz.

Hauek izan daitezke Txakolinak jariatutako aromak: fruta-aroma zuriak (sagarra, madaria), fruta-aroma zitrikoak (limoia, pomeloia, laranja), aroma belarkarak (mihila, moztutako belarra, belar freskoa), fruta exotikoen aroma (anana, platanoa, litchia), loreen aromak (elorri zuria, azukia, ezkia eta ezlia).

Ahoan, ardo-kopuru txiki bat nahasiko dugu. Azukretik eta alkoholetik datorren gozotasuna mihipuntan atzemango dugu. Freskotasuna helarazten duguten zapore garratzak, berri, mihiaeren alboetan nabaritzen dira, eta ardoaren azidoen ondoriozkoak dira. Gazitasuna ezertzen nabaritzen da, eta Hondarribia Zuria barietatearen gatz mineralak eta azido organikoez eragiten dute. Mingostasuna, aldiz, mihiaeren amaieraren erdialdean hautematen da.



Kostalderantz abiatu baino lehen, eta Bilbotik hurbil, oso Txakolin-upategi interesgarriak dauzkagu, beste turismo-eta aisialdi-erakargarri batzuez gozatu bitartean bisitatu ditzakegunak. Adibidez, **Lezaman**; herri hori ezaguna da Bilboko Athletic Clubek hor daukalako instalatuta bere entrenamendu-eremua. **Gatikak Butroeko gaztelua** dauka hurbil; estilo neogotikoko baina Erdi Aroko jatorriko eraikin hori ingurune abantailatsuan dago. **Mungiarako** bidean, **Izenaduba basoa** bisita dezakezue; baserri historiko eta eder horri **Olentzeroren etxea** ere esaten zaio (euskal Gabonetako pertsonaia, Maridomingirekin batera). **Larrabetzu** alde historiko bikaina dauka eta hiru Michelin izarreko eskaintza gastronomikoa du Eneko Atxaren jatetxean. **Zamudion**, Arteaga auzoan, Erdi Aroko dorrea ikus dezakezue.

Kostalderako bidean, eta oraindik ere Bilbotik hurbil, **Algortako Portu Zaharretik (Getxo)** hasiko gara; hor, arrantzaleen etxe tipikoak eta **Ereaga hondartza** dotorea, etxandiez inguratuta dagoena eta kirol-portuan amaitzen dena, ikusi ahaliko ditugu.

Berangon, Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa bisitatu daiteke.

Sopekan, surfean ari-tzeko hondartza bikainak aurkituko dituzu. Barinatxe-La Salvajek duna-sistema propioa dauka. Arriatera-A-txabilribil hondartzaren inguruan, eguzkia sartzen begiesteko aukera ematen duten zenbait taberna aurkituko dituzue. **Plentziak** erakargarri hirukoitza dauka: itsasadarra, familia-aisialdirako hondartza bikaina eta kirol-portua. **Gorlizek** esperientzia paregabea eskaintzen dizue: dastaketa-eta urperatze-jarduerak munduko lehen urpeko upategian: Crusoe Treasure urpeko upategian.



Bakio

Bizkaiko hondartza zabale-na **Bakion** dago (ezin hobe-a **surfean** aritzeko). Udalerria erreferente garrantzitsua da **Txakolin**-ekoizpenerako; ha-ren historiaren berri izateko, **Txakolingunea Txakolinaren Museora** jo dezakezue.

Bermeorako bidean, euskal kostaldeko paraje ikusgarri-errietako batera helduko gara: **Gaztelugatxera**, 241 eskailera-mailak igoko ditugu, baselizaraino, eta han kanpaa hiru aldiz joko dugu, nahi bat eskatuko dugu eta espiritu gaiztoak uxatuko ditugu.



Galdamesko eremuan **El Pobal burdinola** bisitatu dezakegu, gaur berrituta dagoen XIII. eta XIV. mendeetako burdinola hi-drauliko tipikoa. Gure hurrengo galekua **Sopuerta Abentura** izango da, familia guztiak zuhaitzen artean gozatzeko abentura-parkea. Beste ideia on bat da **Loizaga dorrea**, auto zahar eta klasikoen mu-seoa, bisitatzea. Erdi Aroko dorre batean kokatuta dago, automo-bil klasikoen erakusketa iraunkorra dauka eta Rolls-Royce autoen bilduma pribatu berezia hartzen du barne, den-denak egoera ezin hobean.

Karrantzara iritsi baino lehen, **Karpin Abentura**, animalia basatien harrera eta dinosauroen erreproduzioak egiteko zentroa, bisitatuko dugu.

Eta hortik **Pozalaguako ko-bazuloetara** joango gara; *Espainiako txoko onenaren* sa-ria eman zieten, estalakitia eszentrikoen planeta osoko metaketarik handiena hartzen dutelako. Uztailaren erdial-dean, kobazuloen ondoan, Po-zalaguako antzinako harrobiko auditorium naturalean, aire zabaleko musika-jaialdi bat ospatzen da.

Haranean tokiko gaztandegiak bisitatu ahaliko dituzue, eta **ardi karrantzararren gazta** famatueta-ko bat dastatu. Denbora badaukazue, zoazte **Lanestosara**, Erdi Aroko alde ederra dauka eta, Kobazuloi buruz gehiago jakiteko, **Kobenkoba**, Labar Artearen Interpretazio Zentroa, bi-sitatu dezakegu.



Gueñesen Urrutia lande-txeak egingo digu harrera; gaur udaletxe bihurtutako etxebizitza hori behin In-dietara joan eta aberasturik itzuli zirenen lekuko mutua izan zen. Naturaren eta ar-tearen bizikidetzat original batez gozatzeko, **ARENAT-Zarte** bisitatu dezakegu, Arenatza parkean; zuhaitz

bakanak eta eskultura abangoardistak hartzen dituen lorategi botanikoa da. Eta familian bazatozte, bisitatu ezazue Bizkaia Park Abentura (Aldi baterako itxita).

Zallara bagoaz, bere historia muga-liskarrekin eta antzinako burdino-lekin lotzen dituen herri bat aurkituko dugu. Aire zabalaz gozatzeko, Bolunburu atsedenekua aurkituko duzu.

Abellanedako Batzerretxea (Sopuerta) eskualdeko kontzejuek gai orokorreki buruzko erabakiak hartzeko bilera-tokia zen. Gaur egun **Enkarterrietako Museoren** egoitza da. Gero, **Balmasedara** helduko gara; oso alde historiko ederra dauka, non Zubi Zaharra gaientzen den, harresiaren lekukotzarik zaharrena. Horko Aste Santuan Pasio Biziduna berregiten da. **Boinas La Encar-tada Museoa**k, txapela tradizionalaren ekoizpenean espezializatutako antzinako fabrikak, industria-iraultzaren bukaerara eramango gaitu. Bitxitasun gastronomikoak atsegin badituzue, **putxeren** iragana eta oraina ezagu-tzea interesatuko zaizue; indaba-erregosi tradizional hori Bilbao-La Robla lineako trenbide-lanbideek presta-tzen zuten. Bikaina da herriko Txakolinaz lagunduta jatea.

Eskuinetara **Gordexola** aur-kituko dugu. Burdinaren industria oso garrantzitsua izan zen herri horretan, horko burdinola zaharrak XX. mendearen erdialdera arte egon zirelako abian.

Eremu honetan bisita daitezkeen upategiak
GALDAMES UPATEGIA, MARKOLETA UPATEGIA, TXABARRI UPATEGIA, ULIBARRI UPATEGIA, VIRGEN DE LOREA UPATEGIA



Bermeora heltzean, bisitatu **Arrantzaleen Museoa** itsas jendea ezagutzeko, eta gero, Talatik, gozatu itsaslabarren eta **Izaro uhartearen** bidez. **Mundakak**, nazioarteko surfla-rien helmugak eta Europako ezkerreko olatu luzeena dauka-n, kostalde honetako bista onenetako bat eskaintzen du Santa Katalina ermitan. Busturian, Urdaibai Biosferaren erreserban, **Ekotexea-Ur-daibai, Euskadiko Biodibertsitate Zentroa** bisitatu ahaliko duzu. **Gernika** mundu guztian ezaguna den ikonoa da, Gerra Zibile-ko ankersunagatik eta Picassoren obrari esker, gaur egun,

bakearen sinboloa da. **Batzarretxea** eta horko arbola ospetsua dauzka, baita **Europako Herrien parkea, Bakearen Museoa, Euskal Herria Museoa** eta **Santa Maria eliza** ere. **Gernikako** merkatuan zehar ibili ostean (astelehenean) edo horko indaba edo piper ospe-tsuen plater ederra jan ostean, eta herriko onda-re garrantzitsu eta sin-bolikoa bisitatu eta gero, **Kortezubira** abiatuko gara, Omako basoa (orain itxita dago) edo **Santima-miñe koba** ezagutuzera. UNESCOk gizadiaren ondare izendatu zuen koba 2008an eta ederta-sun itzeleko ia berrogei-ta hamar labar-pintura dauzka, baita erakuske-tarako azken teknologiez hornitutako interpreta-zio-zentroa ere.

Arteagarantz itzuliko gara; hor, **Urdaibai Bird Center**, hegaztien eta naturaren museo bizia, eta **Arteagako gaztelua**, gotiko fran-tsesean inspiratutako Erdi Aroko estilo berrituko jauregia, bisita-tuko ditugu.



Hondartzara joateko gogo-a badaukagu, ez dago **Laida eta Laga** baino aukera hoberik. Mendi altuez inguratutako ha-ree urrekarako paradisu ho-rietan, surfean, kayakean edo paddle-surfean aritu gaitzke, edo kanoetan Urdaibaiko itsasadarrean.

Elantxobera, bi itsaslabarren artean ahokatutako herri zo-rabiagarria, joan gaitzeko. Horko portuan, marea bizen

igerilekuetan hartu ahaliko duzue atsedeen. Ibarregelu herrixotik igarota, **Ea** marinel-herri nimoia eta xar-magarrira iritsiko gara.

Barrualdean, **Muxikan**, Txakolin-upategi eder eta moderno bat dago, ezin hobeki prestatutako ardo horren mundua ezagutu nahi dutenentzat.

Eremu honetan bisita daitezkeen upategiak
AMUNATEGI UPATEGIA, BERROJA UPATEGIA, ITSASMENDI UPATEGIA, HASIBERRIAK UPATEGIA



Mendia gustatzen bazaizue, aukerarik onena **Arteara** joatea da, **Gorbeia mendiaren** (Parke Naturalari izena ematen di-onaren) inguruetan baitago. Bizkaiko gailurrik altuena da (1.482 m.). Herri horretan, historia interesatzen bazaizu, Euskal Base-riaren Ekomuseoa aurkituko duzu. Gorbeia Parke Naturalak 20.000 hektarea baino pixka bat gehiago hartzen ditu, Araba eta Bizkaia artean, eta Euskadiko erreserba natural zabalena da. Spa-zirkuitu batez gozatu ahaliko duzue Hotel Bañeario Areat-zan, edo Idiazabal jatorri-deiturako gazta, bertako ardi latxaren esneaz egina, dastatu, gaztandegietako batean.



Arabako lurraldera pasatzu gero, **Aiarako Harana** eta horko bi herri ezagutuko ditugu: **Artziniega**, Erdi Aroko herribildu txikia, non Artziniegako dorrea eta Museo Etnografikoa nabarmentzen diren, eta **Kexaa**, izen bereko monumentu-multzoa duena, jau-regi gotortuak, elizak, domingotarren komentua eta Adatseko Ama Birjinaren kapera-dorreak osatua. **Amu-rrion** Aresketamendi, energia berriztagarrien parkea, daukagu. Aire za-baleko espazio horretan, energia-iturriekin erla-zionatutako zenbait gai-luren funtzionamendua probatu eta egiaztatu ahaliko dugu; horrela, garapen jasagarriak sustatzen dituen energia-printzipioak ezagutuko ditugu. Bikaina familian bisitatzeko.

Berriz ere Bizkaian, **Urduñan** sartuko gara, hiri-titulua daukan Biz-kaiko toki bakarlean.


Antzina Gaztelarekiko merkataritza- eta aduana-enklabe garran-tzitsua izan zen eta ondare zibil eta erlijioso esanguratsua eskain-tzen du. Bizikletazaleak bazarete, gomendagarria da **Gorobel mendilerrotik** paseatzeko.

Bertigorik ez badaukazue, Nerbioiko begiratikira igotzea gomendatzen dizuegu; hortik, euskal geogra-fiako bista zoragarriene-tako bat begietsi ahaliko duzue: **Nerbioiko jauzia**.

300 metro inguruko ur-jauzia da, zaldi-buztan itxurakoa. Handik **Orozkoa** abia-tuko gara. Txakolin ba-tzuz hartu bitartean, Anunzibai zubia eta Legorburu jauretxea, **Museo Etnografikoaren** egoitza, aurkitu.



Eremu honetan bisita daitezkeen upategiak
BIZKAI BARNE UPATEGIA, GURE AHALEGINAK UPATEGIA, UGABE UPATEGIA



Durango oso ingurune natural ederrean kokaturiko herria da. Horko hirigunean, elementu eta eraikin enblematikoak aurkitu ahaliko dituzue, hala nola **Kurutziagako gurutzea** edo Uribarriko Andra Mariaren basilika. Durangoko **Euskal Liburu eta Disko Azoka** abenduan egiten da eta Euskadiko kultura-azoka garrantzitsuen da.

Urkiola Parke Naturala bisitatzea proposatzen dizuegu; pagadietz, urkiez eta haritetz josita dago, eta fauna eta flora bikainak izango dituzue lagun. Mendi-magal batean, Antonio Santuen santutegia dago (Abadea eta Paduakoa). Haren aurrean dagoen harria, herri-sinesmenaren arabera, meteoritoa da eta bertute bereziak dauka: bikote laster aurkitzeko, haren inguruan bira egin behar da.

Elorriorantz abiatu, eta **Atxondon** geldituko gara, **Arrazolako bide berdean**, Anboto mendiaren maga-letan, lasai-lasai paseatu nahi badugu. Beste bisita gomendagarri bat dago: **Betsaiderako** iguera. Horixe da Euskadiko hiru lurraldeek (Ara-bak, Gipuzkoak eta Bizkaia) bat egiten duten leku zehatza.

Jada **Elorrión**, historia-ondarearen balio altuak, jauregiek eta ha-rriri trinkoaz eta harlanduz egindako oinetxeek, Santa Ana monas-terioak, Sortzez Garbiaren basilikak, On Telloren ateak, Tola jau-regiak eta Erdi Aroko harresiaren hondarrek harrituko gaituzte.



Eremu honetan bisita daitezkeen upategiak
ARRITXOLA UPATEGIA, ETXERRIAGA UPATEGIA, MENDRAKA UPATEGIA



Santa Katalina itsasargi izugarriak, zeina itsasargien eta nabi-gazio-tekniken munduaren interpretazio-zentroa baita, behar dugun seinalea emango digu **Lekeitiora** iristeko. Herri horrek ta-berna- eta jatetxe-eskaintza zabala duen portu koloretua, kondai-rakozto uhartea eta alde zahar handientsua dauzka. Azken horretan, ondareari dagokionez, Andra Mariaren erretaula nabarmentzen da, Zeruratzeko basilikan.



Ondarroan, alde zaharrean pasea gaitzeko, eta **Likona dorrea** eta Andra Maria-ren eliza bisitatu. Bizkaiko Txakolin on batez lagunduta marinel-platerak dastatzeko toki aproposa da, hala nola, marmitakoa, txipiroiak beren tinta, bisigu errea, legatza Ondarroako erara, etab.



Eremu honetan bisita daitezkeen upategiak
AXPE UPATEGIA



BILBAO TURISMO
Plaza Biribila 1, Terminus eraikina
944 795 760
bilbaoturismo.net
visitbiscay.eus



EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#Basqueexperience
BILBAO
BIZKAIA
be basque

Goazen UPATEGIETARA!



TXAKOLIN-UPATEGIAK

URIBE

1 ABIO UPATEGIA
688 618 948 / (94) 619 43 45
Basigo baserria,
Elexalde auzoa 5
BAKIO
www.bizkaikotxakolina.eus



2 BUTROI UPATEGIA
639 469 738
Igartua auzoa 25.
GATIKA
www.butroi.com



3 ERDIKOETXE UPATEGIA
625 700 554 / (94) 457 32 85
Goitioitza auzoa 38.
LEZAMA
nekatur.net/erdiokotxe



4 GARKALDE UPATEGIA
677 578 664 / (94) 455 64 12
Goitioitza auzoa 8.
LEZAMA
www.bizkaikotxakolina.eus



5 GORKA IZAGIRRE UPATEGIA
670 197 107 / (94) 674 27 06
Legina auzoa z/g.
LARRABETZU
www.gorkaizagirre.com



6 GORRONDONA UPATEGIA
656 700 764 / (94) 619 47 95
Gorrondona baserria,
Gibelorratzagako
San Pelaio 1. BAKIO
www.donienegorrondona.com



7 MAGALARTE LEZAMA UPATEGIA
672 249 868 / (94) 455 65 08
Garaioltza auzoa 92 bis.
LEZAMA
www.magalartelezamatxakolina.com



8 MAGALARTE ZAMUDIO UPATEGIA
630 109 686 / (94) 452 14 31
Arteaga auzoa 107.
ZAMUDIO
www.bodegamagalartezamudio.com



9 URIARTE UPATEGIA
659 674 595 / (94) 615 31 40
Eguzkiza baserria,
Acillena auzoa 42.
GAMIZ-FIKA
www.txakoli-urarte.com



10 ZABALA UPATEGIA
656 767 954 / (94) 619 33 74
Goitisoloalde 22-A.
BAKIO
www.bizkaikotxakolina.eus



ENKARTERRI

11 GALDAMES UPATEGIA
627 992 063 / (94) 610 46 61
Bentorro 4.
GALDAMES
www.vinasulibarrria.com



12 MARKOLETA UPATEGIA
609 018 820
Markoleta 10. Quadra
GUENES
www.bizkaikotxakolina.eus



13 TXABARRI UPATEGIA
625 708 114 / 658 728 865
Avellaneda auzoa z/g.
SOPUERTA
www.txakolixabarrri.com



14 ULIBARRI UPATEGIA
665 725 735
Isuskiza auzoa 1.
GORDEXOLA
www.visitenkarterri.com



15 VIRGEN DE LOREA UPATEGIA
629 455 620 / (94) 667 17 15
Lorea auzoa z/g.
ZALLA
www.bodegasvirgendelorea.com



URDAIBAI

16 AMUNATEGI UPATEGIA
685 737 398 / (94) 687 19 71
San Bartolome auzoa 57.
BUSTURIA
www.amunategi.com



17 BERROJA UPATEGIA
670 915 657 / (94) 410 62 54
Zugastieta errep.
Bizkaiko Bolkola (Auria)
Barrio auzoa 12. MUXIKA
www.bodejaberroja.com



18 ITSASMENDI UPATEGIA
(94) 627 03 16
Arane auzoa 3.
GERNIKA-LUMO
www.bodegaitasmendi.com



19 HASIBERRIAK UPATEGIA
689 604 106 / (94) 627 77 10
Gametxo auzoa 12.
IBARRANGELU
www.hasiberriakwines.com



GORBEIA PARKE NATURALA ETA NERBIOIKO JAUIZA

20 BIZKAI BARNE UPATEGIA
(94) 633 07 09 / 682 676 713
Muruetza auzoa z/g. OROZKO
www.bizkaikotxakolina.com



21 GURE AHALEGINAK UPATEGIA
658 744 181 / (94) 538 41 26
Ibazurra auzoa 1. URDUNA
www.gureahaleginak.com



22 UGABE UPATEGIA
639 304 436
Sarasola 8.
ARTEA
www.bbkazoka.eus/colecciones/
ugabe-txakoli



URKIOLA PARKE NATURALA

23 ARRITXOLA UPATEGIA
660 017 003 / (94) 681 38 73
Eguskiza 20.
DURANGO
www.txakoliarritxola.com



24 ETXERRIAGA UPATEGIA
607 601 925
Marabi baserria, Boroa auzoa 1
ZORNOTZA
www.bizkaikotxakolina.eus



25 MENDRAGA UPATEGIA
635 730 345 / (94) 682 00 00
Elizalde baserria, Mendraka auzoa 1
ELORRIO
www.mendraka.com



LEA-ARTIBAI

26 AXPE UPATEGIA
655 734 625 / (94) 616 82 85
Axpe baserria, Atxondoa auzoa 13
MARKINA-XEMEIN
www.axpesagardotegia.es



QR KODEEK mapa batera bidaliko zaituzte. Bertan, upeldegi bakoitzaren kokapena dago adierazita eta horietara iristeko ibilbideak iradokiko dizkizute.

